

Administrazioko testuen berritzea eta estandarizazioa

Idatzi juridiko eta administratiboek irizpide hertsia segitu behar dituzte legeak agintzen dituen beharrei erantzuteko. Horretarako idatzi horiek estandar bat segitzeko joera izanen dute, helburua eraginkortasuna baita. Idatziak beti norbaiti adieraziak dira eta ondorioz ulertuak izan behar dute, gaizki ulertzeek prozeduretan beranta sortu dezaketelako, adibidez, eta horrek kalteak ekartzen ahal dituelako jokoan diren alderdientzat. Dokumentuak idazterakoan, gauza anitz garrantzitsuak dira, besteak beste, diseinua, estiloa, edukia, gramatika eta hiztegia.

Horretarako hainbat proiektuk euskara juridiko eta administratiboa garatzen eta hobetzen lagundu dute. Aipatzen ahal duguna hemen IVAPeko *Estilo liburua*. Testu juridiko eta administratiboak idaztean, berritzean edo estandarizatzean erabiltzeko ohikoa bilakatu den dokumentua da. Horrez gain, Aitor Gorostizak idatzitako *Administrazioko idazkiak berritu eta estandarizatzeko teknikak* txostena ere aipatu beharko genuke, bertan auzitegiakoko testuei buruz ere ari baita.

Zehazkiago, berritze eta estandarizatzeko lanak kontutan hartu ditzagun orain. Zer da estandarizazioa? Galdera honen erantzuna “estandar bilakatzea” litzateke... Baina hobeki errateko, onartua edo hedatua dena erreferentzia bilakatzea da. Berdintsuak diren gauza batzuk eredu baten arabera egokitzen ditugu estandarizazioaren bidez. Frantsesera itzuliz “normalizazioa” hitza aurkituko dugu, estandarizaziorako nazioarteko erakundearen izenean oinarrituz (ingelesez ISO). Anitzetan entzuten eta erabiltzen den “normalizazio” hitza hemen dugu berriz. Estandarizazioak, edo normalizazioak azkenean, beste helburutzat ere du egoera normalean ez den hizkuntza, izan behar duen egoerara pasaraztea.

Lehen esan dugunez idatzi juridiko eta administratiboen berritzea ere martxan da. Bere helburua errautsa hartu duenak garai berriari tokia uztea da. Zahartzen ari diren hitz eta esanahi batzuk ordezkatzeko da xede baina ez hori bakarrik. Horrez gain, aitzindari gisa aritu behar da lan hau egitean, geroari begiratuz, antizipazio lana eginez, beti ere gaurko beharrei erantzuten segituz. Hemen azpimarratu behar da euskarak erdarari erranahiak hartzeko joera duela eta pentsa dezakegula beraz erranahi horiek “berriak” direla. Alta badakigu askotan erdarazko jatorrizko erranahi hori zaharra dela eta ez duela berritzeko joerarik, nahiz eta batzuetan zehaztasunaren, testuinguruaren edo behararen aldetik onuragarria legokeen. Orduan hori buruan atxikiz aritu behar dugu beti, ez badugu nahi euskarazko idatzi berriak hasieratik zaharkituak egotea edo larriago, zentzu guttikoak izatea.

Kontuak kontu, estandarizazioari dagokionez, 3 helburu nagusi lortu nahi dira:

- Lehena sinplifikazioa da beharrezkoa dena bakarrik utziz. Berriz oroitarazten ahal dugu idatzi juridiko eta administratiboen helburua eraginkortasuna dela, eta hori lortzeko ezinbestekoa dela ulermena tratatzen ahal duena kentzea. Errepikatzen edo kantitatea gehitzeko emana den gutzia bazterrean uztea, kalitatearen bermea ez baita.
- Bigarrena bateratzea da helburu berdintsurako eginak diren idatziek forma berdina izan

dezaten. Administrazio batetik bestera idatziak ez lirateke hain ezberdinak izan behar, langileen murgilketa eta herritarren ulermena ahalbidetzeko.

- Hirugarrena eta azkena zehazpen eta argitze helburua da. Helburu hori idatzien berritzearekin lotzen ahal dugu. Hemen ulertzen dugu erabilia den euskara zehatza, argia eta hutsik gabekoa izan behar dela. Izan ere, legeak arautzen dituen protokoloiei erantzuteaz gain, ez dugu ahantzi behar idatziek helburu komunikatiboa dutela eta hori ere kontuan hartzekoa da. Alegia, bitarteko oreka atzeman behar da.

Azken helburu honek duda bat sortzen ahal du zehaztasunaren eta argitasunaren arteko bateragarritasunean. Pentsa daiteke zehaztasun handi batek testua luzatu eta ondorioz nahasten ahal duela. Alderantziz, testu argi eta agian, “sinpleegi” batek, idatziari bere zehaztasuna galtzen diola pentsa daiteke. Berriz ere, testu juridiko eta administratiboak herritarrei edo beste administrazioei zuzenduak dira, beraz beti hartzaile bat dute. Indar komunikatibo horretara heltzeko argitasun eta zehaztasunaren arteko oreka bilatu behar da estandarizazio eta berritze lanetan. Gaizki ulertzeak saihesteko indar hori beharrezkoa da. Adibidez, herritar bati zuzendua den testu juridiko biziki zehatzak hartzailea nahasiko du, eta, alderantziz, testua argiegia bada, ez du guk nahi dugun zentzuan ulertuko!

Horretara heltzeko Aitor Gorostizak, Eusko Jaurlaritzako Justizia Saileko hizkuntza normalkuntzako teknikariak, hainbat gomendio egiten dizkigu lehen aipatutako *Administrazioko idazkiak berritu eta estandarizatzeko teknikak* lanean. Azaltzen dizkigun aholkuak IVAPek argitaratutako lanetatik hartuak dira; hauek, hain zuen: *Hizkera Argiaren bidetik, Argi Idazteko Bideak, Argiro* eta *IVAPeko Estilo Liburua*. Egiten duen aholku zerrenda honakoa da:

- aukeran hitz laburrak eta ezagunak erabiltzea
- esaldiak beharrik gabe ez luzatzea
- egitura pasiboak ez gehiegi erabiltzea
- esaldi berean ezezko egitura gehiegi ez sartzea
- esaldi laburrak erabiltze perpaus gehiegizko esaldiak baino
- aposizioak ez pilatzea
- esaldian informazio nagusia aurreratzea
- erlatibozko kate luzeegirik ez egitea
- aditza leku logikoan kokatzea
- kontuz egotea erdarazko gerundio okerren kalkoekin
- errepikapenak erabiltzerakoan neurritz eta beti kohesioa indartzeko
- testu antolatzaileak erabiltzea
- puntuazioa egoki erabiltzea idazkiek kohesio handiagoa izan dezaten
- diseinu argi eta funtzionala izatea
- lerroaldeak egituratzea
- zerbait ulertzen zaila delarik adibideak ematea
- hizkera gaiari egokitzea

Horiek horrela, idatzi bat estandarizatzeko unean lehen urratsa estandarizatu eta berritu nahi den idatzia eskuetan ukatea da. Testu juridiko eta administratiboen kasuan idazten dituen organoarengana jo behar dugu bertako langileekin harremanetan sartzeko. Haiek dituzte hartzaileekin idatzi horien bitartez harremanak eta haiek dakite sortzen diren arazoak zein

diren. Gure lana horrekin hasiz lehen urratsa egina izango dugu, lehen helburu batzuk gogoan izango ditugulako.

Bigarren urratsa gure lana aurreratzea eta haiei proposatzea da. Hau da, hizkuntzari eta komunikazioari buruz dakigun guzia erabiliz testu berri bat proposatu behar diegu, hasierako haien arazoak beti kontuan hartuta. Estandarizazioaren eta hasieran aipatutako “eraginkortasun” helburua berriz aurkitzen ditugu hemen. Baina lan hori aski luzea izan daiteke ez dugula soilik eskuetan dugun testua kontuan hartu behar jakinda. Lan horren helburua idatzi berdintsuen bateratzea da, formula berdinak erabiliz, esaldi automatiko batzuk asmatuz eta abar. Normalizazio prozesu hau garrantzitsua da, idatzi gutxi direlarik, formulak buruz gogora ditzakegulako; eta anitz direlarik, ordea, ahazten ahal ditugulako. Horretarako idazleak ziurtasun batzuk ukan behar ditu gauza batzuk beti ber moduan idatziz. Administrazioa 20 testu aztertzean gauza berdintsua esaten badute 20 erranahi ezberdinekin, guk egokia hautatu behar dugu. Hori da galdegina den lana estandarizazioan. Gainera ez du erran nahi 20 erranaldi horietan erantzun egokia dagoenik! Sailkapen eta hautaketa horretan laguntzeko itzulpen memoriak dituzten programak badira: Trados eta Wordfast adibidez. Horrelako programek laguntzen gaituzte, baina alde aurretik guk dugu erranahien hautaketa lana egiten eta berak memoria lana bakarrik.

IVAPek argitaratutako lanak ezinbestekoak ematen dute idatzi juridiko eta administratiboan estandarizazioan eta berritzean segitzeko. Testu horiek euskara modu zuzen eta jator batean erabiltzea laguntzen dute eta nahiz eta langileei zuzenduak diren bereziki, edonork erabili ditzake. Bestalde ohartzen gara estandarizazio lan horrek Espainia ere interesatzen duela. Nola ez ikusiz ze emaitza dituen hemen. Egia da idatzi juridiko eta administratiboak estandarizatzean askotan gaztelarazko bertsioa ere hobetzea behartzen gaituela. Espainia osoan zaharkituak diren idatzi juridiko eta administratiboak berritzeko unea etorri da eta hemen aurreratu den lana ziur baliagarri izanen zaiela. Ea orain IVAPek sortutako tresnak bezala, tresna berri batzuen sortzea bultzatzen duen espainiar gobernuak... Ez da ziurrena, baina emaitzak direnak dira eta hemendik hurbilago begiratzen badute, onura batzuk aurkitu dituztelako izango da agian. Bestalde, Ipar Euskal Herrian euskara ofiziala bilakatzen balitz, lanaren zati handi bat egina litzateke gaztelarak eta frantsesak duten eiteagatik. Izan ere, Euskadiko Udalen Elkarteak (EUEDEL) proposatutako dokumentuak lagungarriak litzateke iparraldeko udalen administrazioarentzat. Baina Frantziako Administrazioari hurbiletik begiratzen badiogu, ohartuko gara Espainian baino askoz ere idatzi gehiago direla, alde horretatik frantses administrazioa berezia baita, korapilatsua erabat. Ondorioz, tresna berriak sortzea ezinbestekoa izanen da. Momentuko, Frantziak bere administrazioaren modernizazio eta estandarizazio lana hasi duenetik *1 **2, frantsesaren erabilpen bakarrarekin segitu du, euskara eta Frantziako beste hizkuntzak kontutan hartu gabe.

*1: 1.en dekretua

<http://www.legifrance.gouv.fr/affichTexte.do?cidTexte=JORFTEXT00000636267&dateTexte=&categorieLien=id>

**2: 1.dekretua ordezkatzeko duen 2.dekretua

<http://www.legifrance.gouv.fr/affichTexte.do?cidTexte=JORFTEXT000023619023>